

EUSKARAREN ERAGINA DUTEN EDO BEREZIKI HEMENGOAK DIREN ZENBAIT ERDAL FORMA

Beste ezer baino lehen, biziki esker-tzen dut zuen aurrean agertzeko eman zaidan aukera hau, eta hitz ematen dizuet ahaleginak egiten ditudala aspergarri-gi gerta ez nakizuen.

Lan honen helburua ez da euskarakaden inguruko ikerketa sakonik plazaratzea, sinatzen duenak ezgauza ikusten baitu bere burua honetarako; baina bai han-hemenka bildutako zenbait euskarakada aditzera ematea.



Historia Zaharra eta aberatsa du gure herriak.

Baina, zer dira «euskarakadak»? «Erdaraz hitzegitean egiten den euskarazko hitz edo joskera».

Hizkuntzen arteko muga hizkuntz interferentziek markatzen dute. Gure kasuan, euskara eta gaztelaniaren arteko muga hain ugari ditugun erdarakadek eta hain ugariak ez diren euskarakadek (ugaritasun hau, noski, egoera diglosiko batean ematen den indar lehentasunak markatua da, ezin baita ahanzi bi kultur hizkuntza boteretsuk hartua diotela euskarari bere eremua).

Luze joko genuke, beraz, Sebero Altubek hasi zuen bideari jarraiki, egunoro entzun daitezkeen erdarakaden zerrenda ematen: hasi «Gose asko dut» bezalakoekin eta bukatu «Joaten gara etxera?» rekin, sarri askotan «tontoa egiteraino». Izan ere, euskaldun bakoitzaren atzean hizkuntzalari bat omen dago, eta askotan zuzendu dizkiogu elkarri erdarakadak eta gaizki esanak (gehiegitan nire usterako: ez ote du honek dakarren konplexuak erdarara, ur lasaiagotara, eraman euskaldun bat baino gehigo?).

Dena delarik ere, alderantzizko bidea hartuko dugu gaurkoan, euskarakadak aztertuz.



Fonetika-fonologian ez dugu sakonduko (euskararen eraginez sortua dira, besteak beste, gaztelaniaz ematen diren «b» eta «v»ren arteko nahasketa, bost bokaletako sistema, edo latineko hasierako «f»-ren aspirazioa), baina oso berezia omen da bokalak ahoskatzeko gure modua, esate baterako, edo gure «s», «r» edo «ch»ak, («Por+eso» ere, [porreso] egiten dugu askotan, «r» fuertea erabiliz, [porreso] behar lukeen tokian).

Hitz altxorrari dagokionean, cencerro, gorra, baturo, chabola, izquierda, chistera, ascua, pizarra, chaparro,

zamarra, aquelarre,.. euskal jatorrizko hitzak bide dira. Perro (per-ora, «perro perdicero» hitzez hitz) hitzaren jatorri etimologikoa ere euskalduna da askoren ustez. Batzuetan genero eta guzti mailegatu ditu hitzak kaleko erderak: «xuhurro(-a)» edo «gezurtero(-a)» bezalakoetan esate baterako. Zenbait erdaldunek borondate onez ziur aski, «mis aitas» bezalakoak ere esaten dituzte («mis gurasos» ezin esan daitekeenez, hobe lukete «mi aita y mi ama» edo, besterik ezean, «mis padres» baliote). Azkenik, itzulpen aldrebesek eginak sortu dira «Dos Hermanas» (Bi haitz-pe, eta ez Bi ahizpe) edo Donostiako «Pico del Loro» (Loreto-peko) bezalakoak.

Euskararen kasu instrumentalaren («-z»ren) aberastasuna eta balioaniztasuna gaztelaniari ere pasa nahi diote zenbait euskaldunek, antza. Horregatik «A la mañana he ido al parque» bezalakoak darabiltzagu, espainera zuzenean «por la mañana» behar lukeen tokian.

Hartu behar ez direnak ere hartzen ditugu, «coger daño», «coger frío»,... bezalakoetan. Halaber, ukan behar ez direnak ukaten: «Esa película la tengo vista», «ese libro lo tengo leído»,...

«Hala eta guztiz ere» «así y todo» bihurtu dugu («aún y todo» behar luke), eta horri «encima de todo» bezalakoak erantsi.

Beste bat: euskaraz «hemendik aurrera» esaten dugu, baina gaztelaniaz ezin da «de aquí en adelante» («de allí en adelante»;...) esan, «de ahora en adelante» baizik.

Lagundu aditzak ere bi esanahi ditu euskaraz («lagundu dut» eta «lagundu diot»), baina erdaraz «Lagunduko didazu etxera?» ez da «Ayúdame a casa» esaten, «acompañame» baizik.

Bestalde, «gozo-gozoa», «gorri-gorria», «bero-beroa» bezalakoak euskaldunok barra-barra erabiltzen ditugu. Argiñanok eginiko hauen itzulpen literalak sortu du irribarrerik espainolengan.

Janari kontuekin jarraituz, zopa beroa dagoenean, bazterretik hartzen dugu, baina ezin dugu «por la esquina» hartu, «por el borde» baizik (platerek ez baitute «esquina»rik, arrainek «hueso»rik ez duten bezalaxe).

Eta jaten bukatzean, askoz errazagoa eta arinagoa da «sukaldea jasotzea» «levantar la cocina» baino, zalantzarik ez. Eta honekin batera «pasar la escoba» bezalakoak. Atea ere «batu» egiten dugu euskaraz, baina gaztelaniaz, atearen arabera, oso nekeza eta astuna izan daiteke «recoger la puerta».



Zenbait kasutan baditugu hemengo erdal forma bereziak, euskararen jatorri garbirik gabeak. Hala nola, lan egunak, ez dira erdaraz «Días de labor», «días laborables» baizik. Eskolara garai batean eramaten zirenak «maleta» ez ziren bezalaxe, «cartera» baizik. Maria Teresa Echenique hizkuntzalariak dio Erdi Aroan Gipuzkoa eta Bizkaian beste hizkuntza erromantze bat egon zitekeela, Nafarroan eta Gaztelan izan ziren bezalaxe.

Euskararen esaerarik jatorrenei ere jarri diegu beré itzulpen literala: «Hotzak (hilik) nago» edo «Goseak (hilik) nago» horietatik «estoy de hambre», «de frío»,... «estoy sin poder caber» horretara iristeraino. Ildo beretik «Baietzean (ezetzean) nago» «Estoy en que sí (en que no)»,... bihurtu ditugu sasigaztelaniaz. «Me he melado» bezalakoak ere esaten ditugu, euskarazko «mela(tu)» (mela-mela egin, busti, blai egin) darabilgula konturatu gabe. Are gehiago, Elgoibarren «Melau egin naiz esanez gero, jendeak erdarakada ikusten du hor. Gauza bera gertatzen da Bilbotarren abestiak Nerbioi ibaian aurkitu zuen «mokordo» hitzarekin, edo «pitolín» hitzarekin. Halaber, haurrek oinez hasteko sarritan «andaderas» izeneko gailua erabiltzen dute, ez «taka-taka».

Hitzen ordenaren kontua ere oso bitxia da, ikusgarria baita nola gaztelaniaz ere galdegaia eta mintzagaia erabiltzen ditugun. Barra-barra entzun daitezke. Sebero Altubek, besteak beste, honakook aipatzen dizkigu:

«En el peso de la alhóndiga de Iturribide le pesamos y ASUSTAR SE HICIERON todos (beldurtu egin...)».

«VER, no he visto nada» (Ikusi, ez dut deus ikusi).

Sebero Altubek KLIN-KLON ezizeneko idazleak Bilbaoko «La Tarde» egunkarian idatziriko hauek ere aipatzen ditu:

«Con dos años y medio CUARENTA LIBRA PESABA»

«DOLORES SE ME PONEN en el costado»

«BRUJERIA PARECE»



Aditzari dagokionez, «lagunari eskerrak eman geniezazkion eskatu zigun» baino askoz errazagoa zaigu, aditza nominalizatuz «lagunari eskerrak emateko...» esatea, noski. Gaztelaniaz, aitzitik, ezin onar daitezke «Nos dijo para darle las gracias al amigo».

Bestalde, subjuntiboa darabilgu askotan baldintzazkoa (kondizionala) behar lukeen tokian: «*si tendría hambre, comería»

Kazetari batek Perico Delgado bizikletariari esan zion behin: «Euskal Herrian igarotako denbora luzea nabari zaizu, «pues» barra-barra

erabiltzen duzulako». Eta hori, noski, euskararen «bat»ren ispilu da. Eta horrexegatik, sarritan, perpaus bukaeraren jarri ohi dugu: «mNosé pues!».

«Neure kolkorako», «neurekiko» bezalakoekin batera, euskaraz «Neure artean» ere badugu, baina erdaraz ezin da «Pensé entre mí» bezalakorik esan, ez baita zuzena.

«Geroztik» en ondorioz edo, «Pero posterior no me ha dicho nada» bezelakoak erabiltzen ditugu.

Azkenik, euskarak bere-berea du perpausak bukatu gabe uzteko joera. Espainolez ere geureganatu dugula dirudi, «no lo he leído y...», «se me ha perdido pero...» (Bizkaieraz bereziki, perpaus hauek kausal edo adbertsatibo izan daitezke gaztelaniaz ere, euskarazko bukaerako «eta» eta «baina»k duten zentzu berean.

Honenbestez ikus daiteke bi norabide dituen bidea dela hau: bata, aspaldi zaharretik erdarek euskarari jarri dituzten mailegu eta erdarakadena; bestea, lehena bezain zaharra apika, euskararen eraginarena. Jasotzen ditugunak euskararen indargarri, eta ez galgarri, bitez. Baina euskararen garbitasunaz eta garbizalekeriaz dihardugula, gaztelania izan ohi da beti gure metroa. Eta, ikus daitekeenez, euskararen metroa erabiliz ere bada erdaraz zer zuzendurik.

Iseka gaiztoa egiten zitzaien lehen euskal estiloz erdaraz jarduten zuten «cashero» jatorrei. Alderantziz jokutzen dugu egun erdal estiloz jardun arren euskaraz, atseginez eta esker onez bezala onartzen dugu euskarazko emaitzarik traketsena ere. Hala bedi! Baina gizalegea eta zuzentasuna elkarren lagun dira, ez elkarren etsai. Eta eskuzabalak ez dauka etxekalte izan beharrik, ergela izan ezean.

XABIER GABILONDO ETXANIZ